

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gloria Agirrebeña Lizarazu

*Bergara,
Gipuzkoa
(1912-2012)*

Aurkibidea



Biografia



San Antonio kaleko 7. zenbakian jaio zen. Aita Bergarako San Antonio auzoko Gaberixa baserrikoa eta ama Beasaingo Astigarreta auzokoa zituen. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Lau urtetik hamalau urtera arte Enseñanzako mojen eskolan ibili zen. Tejeduria lantegian egin zuen lan urtebetez ehungintzan. Gero etxera itzuli eta josten aritu zen aldi batean, harik eta Orueta medikuaren etxean Tabakalerak zuen biltegian lanean hasi zen arte. Tabakaleran jubilatatu zen, bertan 44 urte lanean eman eta gero. Gloria ez da inoiz ezkondu. Bere kasa konpondu izan zen 95 urte zituen arte. Elkarrietzeta egin zitzaionean, Mizpirualde egoitzan bizi zen.

Zintak

BER-270

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-10-21
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. San Antoniokoa

- **Erref:** BER-270/002
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:01:19. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>San Antonion bizi izan da beti, gurasoekin. Espaloi aldetik lehenengo etxea. San Antonio kalea zen lehen, orain Urteaga. Enseñan ibili zen eskolan, 14 urte arte. Lehen Jaunartzea eta nagusia, biak San Pedron. Mokorra hautsi arte bizi izan da toki berean.</p>

Transkripzioa

-Eta nun jaixo ziñan, nun? jaixo nun?
-Aittakin ta amakin beti bizi izan dou San Antonion.
-San Antonion?
-San Antonion. Eta parria badakizu nun eon zan?
-Bai, bai.
-Bueno, parratik illara haretan, kale... Espoloi aldera. Espoloi aldetik lehelengo etxia, "número siete" zan lehen.
-Ta kaliak zela eukan izena? Kaliak izena zela eukan?
-San Antonio.
-San Antonio?
-Bai ba "calle San Antonio". Oin dago Urteaga.
-Baiña lehen San Antonio zan?
-Lehen San Antonio. Oin Urteaga dago, kanbixauta, "calle Urteaga".
-Eta eskolara nora jua ziñan?
-Eskolan ibili nitzan ni mojetan Enseñantzán, urte danetan, hamalau urterarte.
-Zenbat urtekin hasitta?
-Bueno, ba, ez dakit, bostekin o seikin edo zenbat eruatzen zittuen umiak eskolara... Gauza zienian eruan ta, akaso... behintzat lehelengo komuniua itteko San Pedro... haruz jua. Lehelengo komuniua. Gero komunio jeneralak be bai. San Pedron danak. Eta... gero, han bizi izan naiz. Han bizi. Urte danak han ein dittut. Joan zan... hasta mil novecientos noventa y... mil novecientos... bueno, [osease], nik ein dittut larogeta... hamasei, larogeta hamasei urte ondo. Ondo, etxian. Neu bakarrik bizi naiz, bizi nitzan. Eta nere etxia erabili, ortua be erabili...
- Joño!
- Ortuan be lana eitten neban, eta ondo, ondo. Normal bizi izan naiz ni urte horrek danekin. Eta tokau zan egun bat, sukaldian zutik-zutik naola, plas! jausi nitzala. Eta jausitta geldittu nitzan. Mokorra apurtu nunbait, geldik egoten. Gastau ingo zan...! Hazurrak gastau ingo zien.
- Igual, igual.
- Ta plas! jausi nitzan. Golpe barik, e! Jausi. Gero, hartu eta auzokuei diar ein notsen, goikuei ta albokuei ta, diar baten ni. Eta etorri zien, hiru andra etorri zien, eta harek segittuan diar ein zotsen loibei, eta segittuan anbulantzia etorri zan. Hartu ta Mondragora. Kitto. Mondragotik hasi giñan bueltak eitten, azkenian honaxe allegau.

2. Eskolan jolasik ez

- **Erref:** BER-270/004
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:04:56. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Jolasik ez zegoen eskolan. Ilaran joaten ziren, eta txalo jotakoan salto egiten zuten, hankak berotzeko, neguan. Mojak ziren maistrak. Internoak ere bazeuden ikastetxean. Herriko umeek ez zuten ordaintzen. Asko ikasi zuen. Gaur egungo umeek edukaziorik eta errespeturik ez dutela dio.

Transkripzioa

- Eta eskolan ibili ziñenian ze jolas klase-ta eitten zittuein?
- Jolasak? Ez zeuan jolasik eskolan.
- A ez?
- [Harutz] Ikestera joaten giñan.
- Baiña rekreua ez zan egoten?
- Neguan bakizu ze itten giñuan? Ipintzen giñuzen holako sala libre batera, danok, geure filetan filetan, e? Filetan neska danak, filetan. Eta txaluak jotzen zebeñ eta saltoka itten giñuan genden lekuan, saltoka, hankak berotzeko!
- Hotz itten eben?
- Hankak berotzeko, bertan, saltoka, saltoka itten giñuan. Mojak zeren, maistrak, mojak. Eta harek diar itten zoskuen ta hainbeste miñuturako... saltoka, berotzen. Saltoka, saltoka itten giñuan danok, genden lekuan, ibili barik, geldi-geldi . Bertan salto ein ta “Bueno, ya basta”. Atzera filetan geure lekura. Han ez zan egoten beste jolasik.
- Eta rekreorik-eta ez zeuen?
- Ez zeuen! Guk, normalian, guk ez zeukaun. Akaso rekreua eukiko zebeñ dirua pagatzen zebeñak. Pagatzen zebeñak egongo zien han; “media pensión” ta “internas” ta zeren han pagatzen zebeñak. Baiña gu herriko umiak... normalak giñan gu bape pagatzen ez giñuanak. Ez zan pagatzen, herrixan kontura. Eta haura itten zan, ba, debalde dana, debalde.
- Ta gauza asko ikasi zeuein?
- E?
- Gauza asko ikasi?
- Ikasi bai. Mojak zekixen dana. Harek zekixen dana: bide onian ipini eta betik elizarako bidiak emon eta... ondo, ondo erakusten zebeñ. Eskerrak han ikasi giñuana! Nik esaten dot gaurko umiak asko dare mojetan pasau bihar laukienak.
- Bai? Zeatik?
- Mojetan pasau bihar laukienak, edukaziño puxkat hartzeko. Ez dauke edukaziñoik errespetatzeko haundixaua, eta beste modu baten zaintzeko ostienguei. Hori ikasi bihar dau umetatik, umetatik. Etxian erakutsi bihar jaue, eta etxian ez bada, eskolan ikasi deixela, eskolan ikasi deixela, dana. Hori komeni da umietatik sartu deilla, edukaziño puxkat, errespetau bata bestiai eta hori. E... nik uste dot hori ez dala eskatzia asko.
- Ez, ez, ez da.
- Hori danondako normala ta onena izengo litzakela. Alkarrekin, bata parian pasau da ta: “Ola atsaldeon”, eta “bai, ondo?” ta “bai, ondo” , “aguur”, ta yasta. Baiña kaso inda alkarrei, ez txakurren moduan onduan pasau, kasoik ein barik, eta... Ez, ez, ez. Personak hori baiño jakinddurixa gehitxuao bihar da alkar errespetatzeko. Ezta?
- Bai, bai, bai.

3. San Antonio auzokoen elkartasuna

- **Erref:** BER-270/006
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:08:54. **Bukatu:** 00:09:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

San Antonion elkarri laguntzen zioten familiek. Auzokoen elkartasuna.

4. Gerra garaian, sotoan

- **Erref:** BER-270/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:10:59. **Bukatu:** 00:12:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Parrako berri bazuen amak, ezagutzen zituen sotoak. Han ezkututzen ziren gerra garaian. Bost mutil eta bi neska ziren. Batzuk soldadu egon ziren. Ignacio anaia Afrikan ere egon zen.</p>

5. Hildakoen alde otoitzean

- **Erref:** BER-270/012
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:13:17. **Bukatu:** 00:15:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Sototik irten egiten ziren arriskua pasatutakoan, eta etxe barrura joaten ziren. Ez zekiten zer zen gerra ere. Ezagunak hil egin zirela entzuten zutenean, otoitz egiten zuten. Gorpurik ere ezin ekarri.</p>

Transkripzioa

- Gu danok han egon puxkaten, eta gero, ba, diar eitten zeбен "bueno, pasau dala, abioiak pasau diela eta ya bakia daola" eta orduan jendiak urten eitten zeban gordetako lekutatik urten, sotanotatik-eta urtetzen zeбен, eta bakoitxa bere etxera juaten orduan, [eskutatzaille antzat] geure lekura, ez zeuan kanpora ibili biharrik e, kanpora, danak etxera, barrura atzera.

- Eta gerria hasi zanian, lana-eta jarraitu euen edo fabrikak geratu ein zien edo...?

- Ba, gerria hasi zanian, guk... hasieria, ba, batian, enredua daola ta bestian ez dakit ze daola ta hola bai, baiña, karo, ez zekigun gerria zer zan. Zer zan bez! Izena bai, baiña zer dan ez, ze izaten dan. Ta gero, ba, gerria, bat hil zala ta bestia... mutillak, soldaua edo, mendixan zerela ta haura be hil zala, ta haura bestia be tiroka hil dabela ta... entzuten giñuzen geuk ezautzen giñuzen mutillak hil ziela, horrek danak hil ziela. Eta, klaro, horrek danak... jakin eitten giñuzen eta, bueno, ze itten giñuan? Hil dien horrek daneatik errezau deixoun, errezau deixoun horrei, ta horrei errezau, zerura joan [deixezen]. Eta hori eitten giñuan, baiña besterik ezin ein! Gorputzik

be ezin ekarri. Ez ba! Mendixan igual [hil zien] ta mendixan hil baldin badie, han geldittuko die, kitto.

6. Baratzea eta oiloak

- **Erref:** BER-270/014
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:16:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gerra denboran, inor ez zen baratzean ibiltzen. Porruak, azak, lekak... Landareak, koadroak. Oiloak ere bazituzten, txabola batean.

7. Babarruna, zaku erdi

- **Erref:** BER-270/018
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:18:16. **Bukatu:** 00:19:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Dendak zabalik zeuden gerra garaian. Urdaia, ogia... dendatik ekartzen ziren. Babarrunak zaku erdi izaten zuten, eta azukrea beste erdi. Amak beti sobran ekartzen zuen. Danbolinean erretzen zuten kafea.

8. Lehenengo lana, oihal lantegian

- **Erref:** BER-270/020
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debararreneko lantegiak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Movillas oihal lantegian urtebete egin zuen. Aita pontekoa maisua zen han, eta hark eraman zuen hara. Ehulea. Anaiek ez zuten nahi lanik egin zezan. Etxera bueltatzean, josten hasi zen. Eskolan ikasi zuen, mojetan. Tabako biltegian hasi zen lanean gero.</p>

Transkripzioa

-Ta gero kriada edo ibili ziñan? kriada edo?

-Ba ez. Ni egon nitzan... Movillasenian ein neban urtebete bat edo, lanian,

fabrikan, fabrikan, “en la tejeduría”. Zeaittik han neukan nik, han lana itten zebana, nere aittapuntakua. Aittapuntakua badakizu ze dan?

-Bai.

-Bueno. Aittapunkakuak... han maistrua zauan fabrika horretan, eta harek eruan ninduan harutz lanera. Ta urtebete in neban telarretan, tejedora, ein neban. Neure lehengusiña bat be bazeuan eta haren lagun itteko egon nitzan. Urtebete in neban. Ta gero handik, mutillak, anaiak-eta, esan zebela: “Hori zeaittik euki bihar dou hor lanian? Ekarri hori etxera”. Eta etara ta atzera etxera ekarri ni, berriz etxera. Eta gero, klaro, ni etxian be, ba, ezer ein barik ezin egon, ta hasi nitzan josten. Josten, zeaittik eskolan be jostekua itten giñuan, bordatzen be bai, bainikak, eta lan asko itten giñuan eskolan, mojetan. Han ikasi giñuan josten. Eta gero handik, ba, egon nitzan etxian, josten. Beste puxkaten egon nitzan. Eta gero, hurrengo euki giñuan hemen okasiñua tabakuen almazenera juateko, nere lagunak zeren han lanian, ta tabakuen almazenian sartzeko.

9. 44 urtean tabako biltegia

- **Erref:** BER-270/023
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:22:38. **Bukatu:** 00:24:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Orueta medikua bizi zen etxearen azpian zegoen tabako biltegia. Gero, Azkarate familia geratu zen jabe. Laguna zelako hartu zuten han lanean. Egun guztia egiten zuen han. Amari ematen zion soldata. 44 urte egin zituen han.</p>

Transkripzioa

- Orueta medikua bizi zan hauraxe zan, hauraxe zan. Eta han behian zeuan tabakaleria. Baiña gero, honek gaztiok, anai-arrebak, nerekin egon zien horrek... Azkarate zien, Azkaratiak zien jarri zienak horrek zerian, tabakuen jabe geldittu zienak, Azkarate: Rosa Azkarate, Pascual Azkarate, Jose Mari Azkarate... horrek izen zien tabakuen almazenekuak. Eta ni laguna zela nitzan Rositana, sartu nindduen tabakuen almazenian. Da ni etxetik joaten nitzan tabakuen almazenera. Da egun, egun guztia itten neban almazenian, eitten neban harekin lanian, jornala irabazten. Jornala eruaten notsan amai, eta ama be pozik eta bueno, jan eitten giñuan da bizi giñan hola. Eta han ein dittut berrogeta... berrogetalau urte edo ein dittut tabakuan, almazenian. Ta oin han daukaten diarixuakin bizi naiz! Han lana ein nebalako.

10. Tabakoa, inguruko herrietarako

- **Erref:** BER-270/025
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:27:05

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Gerra ondoren hasi zen tabakaleran. Lokala aldatu egin zuten tokiz. Lehen, herriaren erdi-erdian zegoen. Tabakoa inguruan partitzen zen: Arrasate, Oñati, Sorluze, Eibar, Zumarraga... estankotakoak "sakea" egitera etortzen ziren. Garraiolariek kamioiarekin eramaten zituzten kaxak. Kaxak ematen zizkien.</p>

Transkripzioa

-Tabakalerako almazenian, gerra aurretik hasi ziñan edo gerraostian?
 -Ondoren izango zan. Guk han... zeaittik e... gero lokala be beste lokal batera aldatu zebe, beste edifizio bat, ederra, tabakuendako bakarrik ipiñi zebe. Puxkat apartetxuau, puxkat. Bergaran bertan e! baiña puxkat e... puxkat e... apartatxuau, herrixan barruan barik. Lehengua zan herrixan barruan, [Oruetan] hori, herrixan, herrixan erdi-erdixan zeuan behian. Ta gero, handik etara ta in zebe beste lokal bat, aparte erosi zebe gaztiok, eta ipini zebe haura tabakuendako bakarrik. Ta gero, tabakua izaten zan, ba, inguru danei partitzeko. Ez zan herrirako bakarrik e! Izango zan ba.. partitzen zien... Bergarak eukitzen zittuan: Mondrao, Oñati, Plazentzia, Eibar, Zumarraga... inguru horrek danen estankuak.
 -Almazen haundixa orduan?
 -Bai, haundixa. Ta horrek danen tabakua saltzen zebe estankero danak etortzen zien "sakia ittera" esaten zana, sakia ittera. Osea, etortzen zien, pedidua itten zebe: "hau bihar dot eta hori bihar dot eta bestia bihar dot / biot/". Han eitten zan fakturia; Tabakaleran eitten zan fakturia, han. Eta gero harekin juaten zien bankuan haura ingesatzera. Estankeruak juan bihar zebe. Eta gero, etortzen zan transportistia kamioakin o autobusakin edo etortzen zien transportistak eta harek eruaten zebe jenerua, kajak. Kajak hartu eta oso-oso-osuan kajak. Nik emoten notsen kajak harei. Nik emoten notsen: hamendik bi kaja, hamendik lau kaja... eta emoten notsen hola. Eta hola in giñuan, urte horrek danak, haretxekin batera in neban nik lana.

11. Fariasak eta zigarroak

- **Erref:** BER-270/026
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:28:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Fariasa asko saltzen zen. Zigarro markekin ez da gogoratzen. Paketetan zetorren dena, Donostiatik, eta ez zituzten zabaltzen. Erre egin zuen berak, probatzeko, baina ez zitzaion gustatu.</p>

Transkripzioa

- Goguen dakotzu ze tabako klase euen zu han lanian hasi ziñanian?
-Ba fariasa bazeuan.
-Bai...
-Fariasa eta... fariasa asko saltzen zan. Merkiaua be bazeuan kajia, kajatxua...
-Ta zigarruak?
-Eta zigarrua, zigarruak... harek... han, gaiñera, zabaldutakoik ez zan ikusten, danak paketiak, paketiak, paketiak danak. Etortzen zien, horrek Donostiatik-edo etortzen zien paketiak, eta gero Bergaran deskargau, ta gero Bergarak estankeruai eitten zotsen, eitten zotsen repartua.
-Ta zigarruak ez dakotzu goguen markak?
-Zigarrua... fumau be in neban!
-A bai?
-Bai, aprobau in neban zelakua zan, zelakua zan. Ta esan neban: "Ene... honek tripia ez dau betetzen honek! jatekua ez da hau!". Ta kendu neban. Kendu neban. Ze gusto daukan ikusi ta kendu neban haura. Nik ez dot fumau.

12. Bergarako plazako dantzak

- **Erref:** BER-270/032
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:31:49. **Bukatu:** 00:32:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Bergarako plazan begira egoten ziren, jendeak nola egiten zuen dantza. Beraiek ez zuten mutilekin dantza egiten.</p>

13. Oihalak egiteko makinaren funtzionamendua

- **Erref:** BER-270/034
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:33:59. **Bukatu:** 00:36:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Makinak lantegian oihalak nola egiten zituen aipatzen du. Kanilak jartzen zizkieten, hariarekin, eta makinak egiten zituen oihalak. Zaindu egiten zuten.

Buelta emateko geratu, eta zuzendu. Metro asko egiten ziren. Pieza osoa eramaten zuten batzuek.

14. Itsasoa lehen aldiz

- **Erref:** BER-270/036
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:36:42. **Bukatu:** 00:38:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Itsasoa oso berandu ikusi zuen lehen aldiz. Gertuen Deba zuten. Trenean joaten ziren, lagun kuadrillan. Lau lagun ziren, eta beste hirurak moja joan ziren.</p>

15. Aita, Altos Hornosen lanean

- **Erref:** BER-270/040
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:40:40. **Bukatu:** 00:41:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Aita baserritarra zen, baina Altos Hornosen egiten zuen lana. 79 urterekin gaixotu eta hil zen, jubilatu gabe. Ama 94 urterekin hil zen.</p>

Transkripzioa

-Zure aitta zan Gaberixakua?

-Toribio.

-Toribio.

-Agirrebeña.

-Bai. Eta ha baserritarra zan, edo kalia eitten eben lan?

-Hori zan...

-Baserritarra zan?

-Bai.

-Eta baserrixan bizi zan...?

-Altos Hornosen lan itten zeban.

- A! Altos Hornosen?

- Altos Hornosen, lana itten zeban Altos Hornosen, itxen zeban.

-Eta noiz arte in eben lan, harik eta jubilau arte?

-Ordu asko sartzen zittuan, baiña gaixotu zan hirurogeta... hirurogeta hemeretzi urte-edo dittuala, gaixotu zan ta hil zan, jubilau barik!

-Oindio lanian?

-Jubilau barik hil zan. Ta ama, oster, "noventa y... noventa y cuatro" edo bazeuzkan.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com